

Altza

Drogak mahai gainean

Larraitz Garmendia [fnoa.: 943391267]

a skagintza Altzan taldeak drogei buruzko ihardunaldiak antolatuko ditu maiatzaren 17 eta 18an. Bertan, Hegoamerikako egoera hurbilaraziko digute, besteak beste.

Venezuelatik etorritako Elsie Rosales eta Guillermo Gutierrez izango ditugu hizlari.

Elsie Rosalesek Zientzia Penala aztertzen du Venezuelako Unibertsitatean eta droga trafikoaren aurka Ande inguruko herrialdeetan egiten den zigor politikaren berri emango digu. Hitzaldia datorren asteazkenean egingo da, 19.30etatik aurrera, Casares kultur etxean.

Ostegunean, hilak 18, aldiz, Guillermo Gutierrezen txanda izango da. Gutierrezek Ekuadorreko espetxeetako bizimodua erakutsiko digu erreportai batean. Zehatz mehatz, droga dela eta, preso sartu dituztenak nola bizi diren ikusi ahal izango dugu. Ondoren, solasaldia egingo da. Ekitaldia Casares kultur etxean izango da 19.30etan.

Horrez gain, ekitaldi osagarriak ere izango dira hilabete zehar. Hilaren 8tik 19ra liburu erakusketa ikusgai izango da kultur etxeko liburutegian. Hilaren 12an, 18.30etatik aurrera, Trapu Zaharra antzerki taldeak "La averia" lana eskainiko du.